

# HIZKUNTZA-ERREFORTZUA PROIEKTUA

## 1. IKASLEAK

Gaztelania ezagutzen duten ikasleak, baina ez euskara. Ikasle hauen helburua institutuko B ereduan ikasketak jarraitzeko gaitasuna lortzea da eta horretarako euskarari ahozko eta idatzizko testuen ulermena eta ekoizpenaren maila egokira iritsi behar dute.

## 2. HELBURUAK ETA ANTOLAKETA

Proiektuak oinarrizko bi helburu ditu:

a) Euskal hezkuntza-sistemara iritsi berriak diren ikasleen barneratzea erraztea, eskola-ingurunean ahalik eta azkarren integratu daitezen eta ahalik eta baldintza onenetan.

b) Ikasle horiei berariazko arreta ematea, beren irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuan baliatu behar dituzten hizkuntzen gaitasun linguistikoak eta komunikatiboak eskura ditzaten, curriculumean egin beharrekoak izan daitezkeen doiketak eginez.

Hizkuntza ikastea irakaskuntzaren xedea da. Helburu funtzionala komunikazioa lortzea izango da.

Hizkuntza erabiltzen ikasteko hizkuntza ekintzak landuko dira: entzumena eta irakurmenetik abiatuta, ekoizpena joko da, mintzamina eta idazmenaren, beti ere hizkuntzaren hausnarketa eginez, aurrekoa finkatzen laguntzeko, helburu nagusia komunikatiboa dela ahaztu gabe.

Erreferentzia marko europar bateratuan oinarrituta, ikasleentzat oinarrizko erabiltzailearen maila lortzea izango da xedea: A1 (hasierako maila) eta oso kasu gutxitan A2 (bizirautekoa).

Funtzio komunikatiboa espazio ezberdinetan gauzatuko da: patioan, gelan, txangoetan, kalean, dendetan... baliabide linguistikoak eta ez linguistikoak praktikan jarritz.

Pertsona arteko harremanetan, eguneroko hizkuntza erabiliz, lehen beharretarako hizkuntza barneratzen joango dira.

Zatibitzeekin landuko da:

- Euskara: ulermena eta ekoizpena garatzeko.
- Natur zientziak: gaztelaniaz irakatsiz eta ondoren laburpenak euskaraz eskainiz.
- Gizarte zientziak: gaztelaniaz irakatsiz eta ondoren laburpenak euskaraz eskainiz.

3. eta 4. mailan dauden ikasle batzuk, Batxilergoa egiteko gaitasuna dutenez, eduki gramatikal gehiago ikasiko dute, erregistro kolokiala ere landuz. Ikasleek batxilergoan laguntzarik ez dutela izaten kontuan hartzekoa da.

Integrazioa gure helburua ere bada, hemengo kultura eta beraiena harremanetan jarriz, elkar ezagutzeko eta elkarren ondoan arazorik gabe bizitzeko.

### **3. IRAKASLE TALDEA**

Hizkuntza-errefortzua proiektuaren ardura HIPI irakasleez gain irakasle-talde guztiaren egitekoa izango da proiektua diseinatu, garatu eta jarraitzeko ardura. Zuzendaritza-taldeak antolatuko ditu koordinazio hori egiteko espazioak eta denborak. HIPI irakasleek 2. hizkuntza-eskakizuna beteta dute eta behar adinako prestakuntza edo esperientzia profesionala hizkuntzen didaktikan eta aniztasunaren tratamenduan.

Proiektua aurrera egoki eman ahal izateko ezinbestekoa da koordinazio estua edukitzea prozesuan parte hartzen duten guztiekin: taldeetako tutoreekin, irakasgaietako irakasleekin, PTko irakasleekin.

Zenbait kasutan, HIPIek hartzen dute ikasle hauen tutoritzaren ardura, beti ere talde nagusietako tutoreekin koordinatuta eta adostuta.

Proiektuan parte hartzen duten aholkulariak ikastetxeko orientatzailea eta psikologoa izaten dira:

Orientatzailearen lana, batik bat, bigarren ziklo bukaeran dauden ikasleei zuzendua egoten da, bai lan merkatuari begira, bai ikasketen jarraipenari begira.

Ikastetxeko psikologoaren lana, ikasle bakoitzaren beharrei eta beraien familia harremanei zuzendua egoten da.